

PAZKO ALDIA

BIGARREN SAIOA

Familia maiteok, pazko aldia Aurrera badoa eta aste honetan arraituko dugu Jesusen tresnarekin. Etxeko katekisten taldeko kide izateko behar duzuen bidaliko dizuegu Irakurri eta zalantzarik izanez gero, esan eta berehala laguntzen saiatuko gara Goza dezazue!!
Eta, bero, ez ahaztu ☐

“Katekesia etxean” egitasmoa



... etxean gaude... baina ez giltzaperatuta...
Eskerrik asko, "Berri On" izateagatik!

**AMAK DIRA
INDIBIDUALISMO
EGOISTAREN AURKAKO
ANTIDOTORIK
ERAGINKORRENA**

**NORBANAKO hitzak
ZATIEZIN adierazten du,
EZIN DELA BANATU.**

**AMAK, ORDEA, 'ZATITU'
EGITEN DIRA, SEME-ALABA
ONARTU, MUNDUARI
EMAN ETA HAZARAZIZ**



JESUSEK BALIABIDEEN BILA



NIRE BIDEAN ZUREKIN BAT EGIN

Pazko aldiko III. Igandea



TARTETXO bat JESUSEKIN



1. Tartetxo bat hartu, lekua aukeratu eta eroso jarriko gara; kandela piztu eta Jesusen irudia, gurutze txiki bat, bihotza,... beraien zerbeit... ipiniko dugu.
2. Haurrek egin duten igande honetako ebanjelioaren grabazioa eta "Donde el corazón" abestia entzungo ditugu. Zer kontatu digun, zein galdera pizten digun... komentatuko dugu.

Galdera hauek egin ditzakegu:

Gustuko duzu bidaiatzea? Norekin? Zergatik? Jesus bidelagun dugu bizitzako bidaietan.

Batzuetan, adorerik gabe sentitzen gara eta ez dugu ikusten ondoan nor dugun, bidelagunik ez dugula uste dugu... Nor dugu adore-emaile? Zerk adoretzen zaitu bizitzako bidean aurrera egiteko?

"Zorionekoak Jesus banatutakoan, Eukaristiako ogi eta ardoan, bizitzako gertaeretan, sentipenetan aurkitzen dutenak".

ESKULANA

“BIDELAGUNAK AURKITZEKO BALIO DIGUN LUPA”



Adiskideak bilatzeko lupa.

Originaltasunak eta sormenak ez du mugarik,
nahi duzuen egin, familiok
horrelakoxeak gara-eta...

Oihala, kartoia, makarroiak, kartulina,
papera, plastikoa... erabil
dezakezue...



“Bidean bat egingo dugu”

AURKITU JESUS ESANDAKO 7 HITZ

A	A	W	S	N	I	X	B	I	D	A	I	A	N
V	P	A	R	T	E	K	A	T	Z	E	A	N	C
D	G	A	U	Z	J	Y	P	S	K	P	C	Y	D
U	P	H	V	Q	B	O	U	W	L	U	G	K	E
N	B	U	L	J	K	O	T	W	B	M	N	L	G
W	C	E	Z	A	G	U	T	Z	E	A	O	D	G
T	U	D	H	G	T	W	M	J	D	K	B	R	Y
W	J	R	T	O	B	T	L	A	G	U	N	A	K
A	K	Q	B	F	T	N	O	R	I	Z	L	S	N
F	G	W	F	A	K	Z	D	A	B	I	D	E	A
I	J	K	Z	H	F	Q	S	P	D	Q	I	A	H
G	I	Z	H	X	R	S	B	R	B	U	Q	Q	M
O	G	I	A	S	Y	J	V	Y	A	Y	B	L	L
E	M	A	U	S	L	W	M	V	I	Z	L	F	I

www.educima.com

BIDAIA
EMAUS
LAGUNAK
PARTEKATZEA

BIDEA
EZAGUTZEA
OGIA

OTOITZA –ORACION.

Elkarrekin otoitz egingo dugu

GURE POZA ZARA, JESUS

Iluntasunean, argi egiten diguzu
Zalantzetan, egiak eskaintzen dizkiguzu
Indarkerian, bakea zara.

GURE POZA ZARA, JESUS

Heriotza heltzean, bizi izango zara
Azkena heltzean, hasiera izango zara
Munduko argiak itzaltzean,
betiereko argiak piztuko dizkiguzu zeruan

GURE POZA ZARA, JESUS

Gehien behar zaitugunean agertzen zara
Adiskideek huts egiten digutenean agertzen zara
Agertu eta, batzuetan, ez zaitugu ezagutzen
Agertu eta, zeure ogiarekin, asetu egiten gaituzu

GURE POZA ZARA, JESUS

Gure alde egiten duzu, akatsak kontuan hartu gabe
Maite gaituzu, gure ahazteak aintzat hartu gabe
Berpiztu egiten zara, egun batean,
geu ere Zeurekin piz gaitezen

GURE POZA ZARA, JESUS



ARGAZKIA BIDALI



Pazko aldiko berritasuna!!!!
Larunbatero Instagramen ikus ditzakezue
bidalitako argazkiak:

Lacateencasa



Bidali katekesiko taldeari edo
katekistari egin duzuenaren argazkia:
eskulana, katekesiko esaldi-hitza,...

Garrantzitsua:

Gorde!!! Ibilbidearen amaieran behar
izango dugu-eta.



HIRUGARREN SAIOA: PAZKO ALDIA

